MAGIA PIZTUZ

Gabonetako gehigarri berezia

Argazkia: Endika Diaz Garcia

Ilusiorako osagaiak

Abendua hilabete garrantzitsua da merkatari txikientzat, kontsumoa asko handitzen baita Gabonak eta urte berria direla eta. Hala ere, herritar gehienek saltoki handietara jotzen dute erosketak egitera.

Goraka doa baita ere Internet bidezko erosketen kopurua. Horren aurrean, tokiko merkataritza erabat funtsezkoa da eskualdearen bizitzarako. Eskualdean kontsumitu eta eskualdea oparitzeko gida aurkituko duzu hemen. Izan ere, Aiaraldetik mugitu gabe herrietako saltokietan topatu daitezke Gabonetarako beharrezko osagai guztiak.

MADIS bitxi denda

ITURRALDE 6, AMURRIO · 945 89 26 93
joyeriamadis.com

1 Belarritako eta eraztun distiratsuak, AGUA MARINA.

2 Gizonen erlojua, kronografoarekin eta ehunezko uhalarekin, SANDOZ VITESSE.

LEVI'S

ARABA KALEA 1, LAUDIO
946 726 224 · 688 818 681

3 Emakumezkoen jaka, NAF-NAF. 99,90€

4 Gizonezkoen prakak, DOCKERS. 99€

1971 moda denda

BATZALARRIN 8, LAUDIO · 946 533 004
1971trendy@gmail.com

5 Gizonezkoen jertsea, PETROL.

6 Emakumezkoen soinekoa, SURKANA.

OLYMPUS kirol denda

BAIAS 4, LAUDIO · 94 672 11 36

7 Gizonezkoen lumadun berokia, TRANGO SLIGO.

8 Emakumezkoen lumadun beroki luzea, TRANGO GALWAY.

TXIMELETA

ZUMALAKARREGI 50, LAUDIO
94 672 27 20

9 Beroki iletsu luzea, 179€

10 Jertse koloretsua eta berotsua, 68€

AGROLAUDIO

ARZA POLIGONOA, LAUDIO · 94 672 22 01
agrolaudio.com

11 Motozerra (38,2 cc, 1,4 kW), HUSQVARNA. 219€

12 Flamenko apaingarriak, 40,9€ eta 47,1€

Ilusiorako osagaiak

Aiaraldeko erakusleiho onenak aukeratuko dituzte

Aiaraldeko 45 saltokik IX. Erakusleiho Lehiaketan hartu dute parte. Sari banaketa abenduaren 21ean izango da Artziniegan, Laudioko XXIX. Erakusleiho Lehiaketarekin batera. Honetan, herritarrek botoa eman dezakete eta zenbait zozketatan parte hartu.

ADEKOk (Aiaraldeko Enpres 4210ordinaziorako Federazioa), Aiaraldeko IX. Erakusleiho Lehiaketa antolatu du. Guztira, 45 saltokik hartu dute parte euren erakusleihoak atonduz. Dendak Amurrion, Artziniegan, Laudion eta Okondon daude eta kartel bat dute lehiaketan parte hartzen ari direla identifikatzeko.

Epaimahaia erakusleiho-apainketan adituak diren hiru teknikarik osatzen dute: Belen Urrutxik, Iñigo Bastidak eta Txus Suarezek. Hauek bost ezaugarri hartuko dituzte kontuan: sormena eta originaltasuna, produktuaren erakusketa, argiztapena, kromatistika eta elaborazioa eta akabera.

Sari banaketa

Orotara, sei sari banatuko dituzte eta banaketa ekitaldia abenduaren 21ean egingo dute Artziniegan. Aiaraldeko erakusleiho onenak 700 euro eta garaikurra jasoko ditu, bigarrenak 300 euro eta trofeoa eta hirugarrenak 150 euro eta trofeoa . Gainera, bi garaikur banatuko dituzte; bata Aiarako erakusleiho onenari eta, bestea, Okondokoari. Horrez gain, AENKOMER-ek, Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresen elkarteak, erakusleiho deigarrienaren saria banatuko du. Honek 150 euro eta garaikurra jasoko ditu.

Laudioko erakusleiho onenak

Laudiok ere badu bere erakusleiho txapelketa propioa, eta aurten XXIX. edizioa ospatuko du. Aurten 21 saltokik hartu dute parte eta sari banaketa Aiaraldeko Erakusleiho Lehiaketarenarekin batera egingo da, abenduaren 21ean Artziniegan, alegia. Honako honetan, gainera, epaimahai teknikoak ez ezik, herritarrek ere izango dute botoa emateko aukera. Laudioarrek abenduaren 18ra bitarte erakusleiho gogokoena aukeratu ahal izango dute. Horretarako, Laudio Berrikusi aplikazioa instalatu beharko dute telefono mugikorrean. Pertsona bakoitzak erakusleiho bakarra aukeratu ahalko du eta botoa ematearekin batera zozketa batean hartuko du parte: APILLek 100 euroko txartel bat, 50 euroko beste bat eta sari anitzeko 10 sorta banatuko ditu.

Sariak ez dira hor amaitzen, ordea. Erakusleiho guztiak bisitatzen dituztenek ginkana batean hartuko dute parte Laudio Berrikusi aplikazioaren bidez. Horretarako, erakusleihoetan dauden QR kodeak eskaneatu beharko dituzte abenduaren 22a baino lehen. Parte hartzaileen artean Gabonetako bi otzara eta 50 euroko bale bana zozkatuko dituzte.

Ilusiorako osagaiak

GOAR
BURDINDEGIA
Buruan duzun guztia oparitarako biltzen dizugu
Alberto Acero enparantza 1, Laudio
94 672 01 50 @ferreteriagoar

ATSEDENA
OPARITU
Egonaldi eta bainuetxe opariak:
bikoteentzako egonaldi erromantikoak, zirkuitu termalak, gosariak, masajeak...
ERRESERBATU ZURE BONUA!

hotelbalnearioareatza.com
balneario@hotelbalnearioareatza.com
94 657 27 05

HOTEL ORDUÑA PLAZA
**** Balneario



hotelbalneariorduna.com
balneario@hotelordunaplaza.com
945 56 90 38

20 URTE ZUEKIN
EUSKO PC
SALMENTA, KONPONKETA ETA MANTENUA
ENPRESAK ZEIN PARTIKULARRAK
Ezka kalea 3, Laudio 94 608 73 10

Xcaret
ESTILISMO
ADITUAK GARA:
· Balayageetan eta dekolorazio osoetan.
· Trikologia tratamenduetan (erortzeak, kaspa/zolda, psoriasia...).
· Makillajean.
SCAN ME
BAIAS KALEA 5, LAUDIO 94 602 76 94
@xcaret_estilismo
xcaretestilismo.com



hotelbalnearioareatza.com
balneario@hotelbalnearioareatza.com
94 657 27 05

BAINUETXE BONUAK
OPARITU
Bainuetxe opariak:
zirkuitu termalak, masajeak, gorputz tratamenduak...
ERRESERBATU ZURE BONUA!

HOTEL ORDUÑA PLAZA
**** Balneario

hotelbalneariorduna.com
balneario@hotelordunaplaza.com
945 56 90 38

Ilusiorako osagaiak

Aiaraldeko emakume sortzaileen bigarren azoka egingo da abenduaren 17an Faktorian

Bor-bor feminismo Faktoriak bigarren urtez antolatu du Aiaraldeko emakume* sortzaileen azoka. Iaz azaroan izan zen ekimena, eta ekoizleekin batera elkarlanean aritu ostean, abendura atzeratzea erabaki zuten. Hala, abenduaren 17an izango da ekimena, Aiaraldea Ekintzen Faktorian.

Ordutegia

11:00etan irekiko dituzte azokako ateak, eta eguerdira bitarte egongo dira ekoizleak euren postuetan egindako lanak erakutsi eta saltzen. Aiaraldea Komunikabideak jarraipen berezia egingo du tokiko produktuak eta sortzaileak ezagutarazte aldera. Bor-bor feminismo elkarteak antolatu du ekimena, Amurrioko Udalaren laguntzarekin.

Pirritxek, Porrotxek eta Marimototsek euren 35. urtebetetzea ospatuko dute Amurrion abenduaren 16an

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak 35 urte betetzen ari dira aurten eta Gabonetako ohitura jarraiki, Amurrioko Bañueta Kiroldegian egongo dira abenduaren 16an, 18:00etan. Gauzak horrela. 70 minutuko ikuskizun berezia eskainiko dute efemeridea ospatzeko lagunekin eta familiekin. "Urteak bete, abenturak bizi" izena jarri diote ostiraleko ikuskizunari. Panpoxa furgoneta hartu eta dantza eta musika ez ezik, tarta erraldoia ere ekarriko dute Aiaraldera.

Sarrerak salgai

Sudurgorrien jarraitzaileek sarrerak eros ditzakete astelehenetik aurrera Amurrioko Kultura Etxean, 3 euroren truke. Urteroko hitzorduari eutsiz, ohikoan bezala, Ohitura elkarteak antolatu du ekimena, Amurrioko Udalaren laguntzarekin.

Ilusiorako osagaiak

Hamaika aukera Mari Domingi eta Olentzerorekin egoteko

Jare Photography

Eguberrietako une zirraragarrinetako bat da Mari Domingi eta Olentzerorekin topo egitea. Abenduko azken egun hauetan agenda beteta daukate ikazkinek, eta Aiaraldea Komunikabideak hitzordu guztiak biltzeari ekin dio, inor ez dadin eurekin elkartu gabe geratu. Datozen egunetan Aiaraldea.eus atarian egongo dira deialdi guztiak ikusgai.

Datozen egunetan ohikoak bilakatuko dira Mari Domingi eta Olentzeroren bisitak Aiaraldean. Bi pertsonaiak hainbat aldiz jaitsiko dira menditik eskualdeko haur zein helduekin egoteko. Asteburu honetan bertan izango dira lehen zitak. Larunbatean San Roken egongo da Olentzero, eta Amurrioko herritarrek bera bisitatzeko aukera izango dute, 10:30ean. Baina horretarako beharrezkoa izango da aurretik doako tiketak eskuratzea, Turismo Bulegoan. 16:30ean, aldiz, Luiaondon egongo da gutunak biltzen, Santo Domingo zelaian. Abenduaren 22an ere egongo dira hainbat jarduera. Amurrion bisita antolatuko dute Goikomendira, Olentzeroren ikaztegira, hain zuzen. Autobusez egingo da bidaia. Irteera 10:30ean eta 11:15ean izango da eta itzulera 14:00etan eta 14:45ean. Larunbatean bezala, sarrera doakoa izango da, baina kasu honetan ere beharrezkoa izango da aurretik Turismo bulegotik pasatzea. Arratsaldean, aldiz, ikazkina egongo da Laudioko Ugarte auzoko plazan, 18:00etan. Haurren gutunak eta eskaerak jasoko ditu bertan.

24an, eskualde osoan

Hilaren 24an, aldiz, ia herri guztietan egongo dira jarduerak. Luiaondon 17:00etan abiatuko da kalejira Zubibarri zubitik. Ordu berean egongo dira Olentzero eta Maridomingi Urduñako frontoian, haurrak agurtzen. Laudion, aldiz, 18:00etan ekingo diote ohiko desfileari.

Aipatutako deialdi hauek guztiak egongo diren guztien lagin bat baino ez dira. Kalejira guztien ordutegi eguneratua Aiaraldea.eus atariko Agendaren atalean kontsultatu daiteke, Gabonetako gainontzeko ekintza guztiei buruzko informazioarekin batera: antzerkiak, sukaldaritza tailerrak, kontzertuak edota azokak.

ESKUALDEKO ZAPOREAK

Otorduen inguruan elkartzeko sasioa dira gabonak. Bazkari zein afarien bueltan aspaldiko zien eguneroko senide eta lagunekin elkartzeko une ezinhobea. Horretarako, ezinbestekoa da menu goxo eta atsegin bat aukeratzea, eta zer hobe tokiko produktuekin sukaldatzea baino! Faktoriako Ekonomatuak ere aurki zabalduko ditu berriro ateak, tokikoa eta gertukoa guztion eskura jartzeko asmoz.

Aiaraldean ekoizle, merkatari eta ostalari ugari daude kalitatezko eta gertuko zerbitzu bat eskaintzeko prest. Hurrengo orrietan Aiaraldeko zaporeen katalogo zabala topatuko duzu.

Eskualdeko Zaporeak

“Hiriskak bere hondar alea jarri du haurren minbiziaren aurkako borrokan, azokaren bidez”

Artziniegako Hiriska elkarteak sare sozialetan jakinarazi duenez, banatu ditu jada Gabonetako azokako zozketako sariak. Urtero bezala, abenduaren 6an, 7an eta 8an egin zuten merkatua. Ez da edonolakoa izan gainera, Aspanafoa elkarteari emango baitiote pilatutako diru guztia. Modu horretan nahi dute lagundu minbizidun haurren elkartea, zehaztu dutenez. "Hiriskak bere hondar alea jarri du haurren minbiziaren aurkako borrokan, azokaren bidez. Aspanafoa elkartea laguntzera animatzen zaitugu", azpimarratu dute. Hogeigarren aldia da azokaren ekimena antolatzen duena Artziniegako emakume elkarteak.

Datozen asteetan ekimen gehiago egongo dira Artziniegan Gabonen harira. Batetik, Artziniega Museoak Olentzero eta Maridominirentzat gutunak bertan uzteko deialdia egin du abenduaren 16tik 18ra. Bestetik, abenduaren 17an Gabonetako gozoen lehiaketa antolatu dute.

SELENE DIAZ GABIÑA
Selene Frutadenda

GAZTAIN FLANA

OSAGAIAK
- Litro erdi esne erdi gaingabetua
- Gaztainak estaltzeko esnea
- 4 arrautza
- 250 gramo azukre
- Limoi-zukua
- Kilogramo erdi gaztaina
- Kanela-adar 1

PRESTAKETA

Gaztainen azala apurtu, kazo batean jarri eta egosi. Gero, azala kendu. Jarri berriro ontzi batean, esnez estali eta 50 gramo azukre gehitu. Egosi bigundu arte eta dena batera birrindu.

Berotu litro erdi esne kanelarekin eta utzi ordu erdi bat infusionatzen. Gero, esne epel honekin arrautzak, gaztaina-purea eta azukre gehiago (150 g) nahastu.

Gozokia prestatu azukrearekin (50 g), koilarakada bat ur eta limoi-zuku tanta batzuekin. Flan-ontzian bota eta gero bete gaztainen nahasketarekin.

Amaitzeko, maria bainuan egosi behar da flana, labean 170 °C-tan, 30-40 minutuz. Hoztu ondoren, desmoldatu, zerbitzatu eta listo!"

selene frutadenda
Landako kalea 1, Amurrio
945 09 25 50

Eskualdeko zaporeak

'Bertoko artisauak' denda zabalduko dute abenduan Amurrioko hainbat sortzailek

Abenduaren 9tik 24ra arte eta urtarrilaren 3tik 5era egongo da gunea zabalik. Udaletxe aurreko Armurulanda plazan dago kokatua denda.

"Artisau batzuk elkartu eta proiektu berri bat jarri dugu martxan. Gabon hauetan zehar denda berri bat zabalduko dugu Amurrion". Hala adierazi dute 'Bertoko Artisauak' ekimeneko kideek. Hain zuzen, sare sozialetan eman dute egitasmoaren berri.

Armurulanda plazan egongo da kokatuta denda, "udaletxe aurreko parkearen alboan". Ordutegiari dagokionez, astelehenetik ostegunera 17:00etatik 20:00etara egongo dira, eta ostiraletan goiz eta arratsaldez; "11:00etatik 13:30era , eta 17:00etatik 20:00etara". Larunbatetan, berriz, bi ordu eta erdiz zabalduko dituzte ateak: 11:00etatik 13:30era.

Gonbidatu ugari

Artisauak eta gonbidatuak egongo dira elkarrekin, zenbait unetan. Gonbidatuak nortzuk izango diren ere aurreratu dute: Irune Izer, Tanta Atelier, Itziar Ugarte eta Xamore-Bisutery

Artisauak, berriz, hauek izango dira: Hiruconceptsore, Olaja Art, Marfri Ecoprint eta Sorpresa opariak

Ekimenaren nondik norakoak Instagrameko Bertoko Artisauak kontuaren bitartez kontsulta daitezke.

AIDA FUENTES IZA
Iza Okindegia

"Gora ogi osasuntsua!"

EGUBERRIETARAKO GOXOAK:

Etxean egindako polboroiak, txokolate eta fruitu lehorren turroia, , errege-opilak, stollen ogi alemana, txirikordak...

OTORDU BEREZIETARAKO OGIAK:

Hartzidura luzeko ogi artisauak, ama-orez eta irin garbiekin eginak. Baserri ogia, Gorbeia, Zazpi-haziduna, Mahaspasa eta intxaurrena, Integrala, Artotxo, Tritordeuma, Espelta... Eguberrietako otorduentzako eskaintza zabala.

ESKAERAK ETXEKO ATARIRAINO:

Egin zure eskaerak 94 672 84 94 telefonoan (Whatsappez ere egin dezakezu) eta etxeko atariraino eramango dizkizugu ogi zein goxoak.

Zumalakarregi 30, LAUDIO
Kurtzegan 3, OROZKO
Tel.: 94 672 84 94 /94 661 00 68

Eskualdeko zaporeak

Eskualdeko zaporeak

Izaki mitologikoekin eta Olentzero eta Maridomingirekin egoteko aukera izan zuten igandean

Olentzero, Maridomingi, Akerbeltz, lamiak... ezagutzeko aukera izan zuten atzo hamarnaka familiek Aginagan. Izaki mitologikoek lagunduta jaitsi ziren Gabonetako bi pertsonaiak Aiarako herrira, eta eurekin egoteko aukera izan zuten denek. Laguntza elkartearentzako jostailuak jasotzea izan zen ekimenaren helburua.

Aiarako Biltokia Elkarteak, 24 Elkarteak, Etxaurren Ikastolako guraso elkarteak eta tokiko Administrazio Batzarrek antolatutako Aiarako Olentzero Solidarioa ekimenak 12 urte beteko zituen igandean Agiñigan. Beti bezala, helburua jostailuak biltzea izan zen, gero Amurrioko Laguntza elkarteari emateko.

Goizeko 11:00etan hasi zuten ekimena. Olentzero bilatzeari ekingo zioten ordu horretan eta Mari Domingik gidatuko zuen ibilbidea. Herrian aurrera egin ahala, pertsonaia mitologiko gehiago agertu ziren: lamiak, tartalo, basajaun, akerbeltz, galtzagorriak... Guztiak Izoriaraino bertaratutako haurrak laguntzeko asmoz. Olentzero aurkitu ostean txokolate janarekin bukatu zuten goiza.

Eskualdeko zaporeak

Errazioak eta sukaldaritza tradizionala Gorka tabernan

1982an zabaldu zituen ateak Batzalarrin kaleko Gorka tabernak. Laudioko Herriko Plazako Estanis taberna ezagunaren errezetak jarraitzen dituzte geroztik. 40 urte etengabeko eraldaketa murgilduta igaro ostean, duela gutxi eskaintza berria plazaratu dute sukaldaritza-tradizionalaz gozatzeko: 'brunch-ak'

40 urte bete ditu Batzalarrin kaleko Gorka taberna ezagunak. 1982Ko uztailaren 1ean zabaldu zituen ateak, eta geroztik eraldaketa etengabe batean egon da murgilduta, bezeroei zerbitzurik onena eskaintzeko helburuarekin. Herriko Plazako Estanis taberna ezaguneko Estanis eta Domingaren seme nagusiak eta bere emazteak ireki zuten Gorka taberna, eta jatetxe gisa ekin zion bere ibilbideari . Poteorako taberna batera igaro zen, eta semeek negozioaren gidaritza hartu zutenean jende gazteari bideratutako eskaintza inplementatzeari ekin zioten. Une horretan egin zen tabernaren lehen erreforma handia. Garaiak aldatu eta jai-giroa desagertzen joan zen heinean errazioetan espezializatu zen Gorka taberna, eta horrela dirau gaur egunera ere.

Betiko sukaldea

Gaur egun ere Estanis Tabernako errazio ezagunen errezeta berdina jarraitzen dituzte Gorka tabernan. "Nire amama Domingaren errezetak dira gehienak: txerri-patak, bakailaoa errioxar erara, txipiroiak saltsan... Bexamelaren errezeta ere amamarena da" azpimarratu du tabernako arduradun den Carlosek. Oso pozik daude Gorkan tabernan errazioek duten harrera onarekin.

'Brunch-ak'

Azken urteetan apustu berri bat heldu diote Gorka tabernan: brunchak. Egunero eskaintzen dituzte, 11:00etatik 13:00ak arte. "Gosariaren eta bazkariaren arteko erdibideko eskaintza da, hamaiketako bat", azaldu du Carlosek. Otordu hauek ere harrera beroa izan dute.

Hauetaz gozatu nahi duen edonork tabernako telefonora deitzea besterik ez du, mahaia erreserbatzeko.

1982AN SORTUA GORKA TABERNA

Batzalarrin kalea 7, Laudio
94 672 49 30
@gorkataberna

Eskualdeko zaporeak

Amurrio Trail Taldeak Akerbeltzen kontzertua gehituko dio ohiko Babio Igoera solidarioari aurten

Amurrio Trail Taldeak antolatzen duen elkartasun ekimen bikoitzak -Babio Non Stop eta Babio Igoera- erromeria kontzertua ere eskainiko du abenduaren 23an.

Amurrio Trail Taldeak Babio Igoeraren edizio berria prestatu du aurten eta ekintza berritzaileak iragarri ditu. Hain zuzen, bi ekimenek bidelagun berriak izango dituzte. Edozelan ere, 'Babio Igoera Non Stop' ekimenaren formula errepikatuko da: jendeak izena eman beharko du hainbat orduz luzatuko den ekimenean, mendi horretara txandaka igotzeko.

Gauzak horrela, abenduaren 23an Zaraobe Institutuko, Aresketa Ikastolako eta Amaurre Ikastetxeko DBH-ko hirugarren mailako ikasleek mendira joko dute aulki egokitu batekin. Izan ere, gogoratu beharra dago Amurrio Trailek berak, nolabait, bultzatu zuela Ezina Ekinez Egina taldea, eta horrek aniztasun funtzionala duten herritarrak laguntzen dituela aire librean kirola egiten, horrelako tresnak erabilita.

Ekintzetara itzulita, 18:00etan hasiko da Juan Urrutia plazan, berez, '16 ordu Babio Non Stop' erronka. Une horretatik aurrera, eta hurrengo egunean Babioko azken igoera egin arte, orduro aterako dira taldeak Amurriotik gertu dagoen mendi tontor horretara heltzeko.

Izen ematea hemen egin daiteke 10 euroren truke. Diru hori AFARABA elkarteari emango diote. Alzheimerraren eta bestelako gaixotasunen esparruan lan egiten du taldeak.

Edonola ere, diru gehiago biltzeko, Amurrio Trailek Akerbeltz taldearen kontzertua antolatu du 22:00etan Udaletxe aurrean. Txosna jarriko dute eta bertan biltzen duten ekarpen ekonomikoak helburu bera izango du.

Ekintza gehiago

Hurrengo egunean, 10:00etan, Babio Igoerari ekingo diote Montes Solidarios eta Ezina Ekinez Egina taldeekin. Helmugan Luis Padura omenduko dute. Gizon hori da mendian dagoen artzainaren eskulturaren egilea. 13:00etan amaituko dute egitasmoa txokolate eta txistorra janarekin.

Eskualdeko zaporeak

TANTXIKU
HANBURGESAK
SANDWICHak
BOKATAK
946 722 774
Zubiaur Kalea 3, LAUDIO
MENUA KONTSULTATU

RESTAURANTE OKELURI
Eguneko menua · Asteburuetako menuak
Taldeentzako menuak
945 89 20 50 ~ Berganza auzoa 2, Baranbio (AMURRIO) ~ @restauranteokelurijatetxea

pescadería legatza arraindegia
Zorionak eta urte berri on
LAUDIO
Zumalakarregi 39,
94 672 13 66
AMURRIO
Frontoi kalea 2,
945 89 16 21

Goxe Berri
Fruituak eta Barazkiak
Jose Madinabeitia 1, AMURRIO T. 945 89 08 47
· Nafarroako produktu hautatuak
· Zure sukalderako Gabonetako jaki onenak:
Madariak, laranjak, ananak, kardua...

kafe iluntze
Gabonetan ere, egin gurekin topa!
URTE BERRI ON!
Zumalakarregi etorbidea 47, Laudio
kafeiluntze@gmail.com 946 72 50 23

URDAITEGIA
OILASKO DENDA
M.ª PAZ
Produktu Bikainak
Zorionak eta urte berri on!

Plaza Abastos - Azoka LAUDIO 946 720 467

DASTAKETA
GOZOKI DENDAK
www.pasteleriadastaketa.com
Gabon gozoenak Dastaketarekin
Lamuza kalea 5, LAUDIO 94 672 07 13
Landako 2, AMURRIO 945 89 14 70
Severo Otxoa 33, ARRIGORRIAGA 94 400 88 89

EL TUNEL
TABERNA-JATETXEA
Taldeentzako afariak
Etxera eramateko janaria
Igandeetan, abenduaren 25ean eta 26an,
eta urtarrilaren 1ean eta 2an itxita
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!
Gasteiz kalea 5, ARETA-LAUDIO // Tel. 94 672 05 58 // /barrestauranteeltunel

-PUBLIZITATEA-

THE POWER REVOLUTION

POWERRA NAHI BADUZU

ESKURATU SMARTWATCH BAT EDO ENTZUNGAILUAK

IZAKINAK AMAITU ARTE (3.000 UNITATE ARTIKULU BAKOITZEKO) EDO 23/12/31

300 EUROKO INBERTSIO FONDO BAT ETA KUOTA-PLAN BAT KONTRATATZEAGATIK*

Finantza-merkatuetako inbertsio orok arriskua dakar,
inbertitutako kapitala galtzeko edo errentagarritasunik ez izateko arriskua barne.

* 18 eta 35 urte bitarteko pertsona fisikoei zuzendutako kanpaina, gutxienez 300 €-ko inbertsio-fondoa eta hilean 25 €-ko kuota kontratatzen badute. Egindako inbertsioa urtebetez mantendu beharra dago. Sustapena Kutxabanken inbertsio-fondoak dituzten beste pizgarri batzuei ezin zaio metatu. Opariak atxikipenari lotutako kapital higigarriaren errendimendua du, eta Kutxabankek aplikatuko du, zerga-araudiaren arabera. Atxikipen hori ez zaio bezeroari jasanaraziko. Bezeroak bere PFEZaren aurrezkiaren zerga-oinarrian aitortu beharko du jasotako pizgarria gehi jasanarazi gabeko atxikipena, eta, bestalde, atxikipen hori kentzeko eskubidea izango du. Kutxabankek merkaturatutako inbertsio-fondo bakoitzaren arrisku-maila eta informazioa Inbertsio Fondo bakoitzaren Inbertsiogilearentzako Informazio-liburuxkan edo Funtsezko Datuen Dokumentuan daude zehaztuta, www.kutxabank.es eta www.cnmv.es webguneetan. Kutxabank SA, Kale Nagusia 30-32, Bilbo, IFK: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta: 5226 liburukia, 0 liburua, BI 58729 orria, 1 folioa, 1. Inskripzioa.

KUTXABANK KORNER
kutxabankkorner.eus